

PATXI X. OLABARRIA FURUNDARENA
Ikastetxeen Zuzendaria
Hezkuntza Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Donostia, 1
01010 – GASTEIZ
Faxa: 945018336

2008-2009 IKASTURTERAKO EGUTEGIA osatzeko araudiaren gainean

AIXERROTA BHIko klaustroak, LHko eta BHko ikastetxe publikoetan 2008-2009 ikasturterako eskola-egutegia egiteko osagarritzko arautegia ematen duen 2008ko apirilaren 29ko Erabakia jaso ondoren, ondoko adierazpen hauek egin nahi ditu:

- Aipatu Erabakiak, orain arte gure urteroko eskola-ordutegian eragina duten aldaketa nabariak islatzen ditu, besteak beste:
 - Eskola-egunen eta eskola-orduen kopurua ez da lehengoa.
 - Herriko bi jaiak eta zaindariaren eguna ezin dira kopuru horretatik kendu, beti egin den bezala.
 - Lehenengo eskola-eguna astearte batean kokatu duzue.
- Hain garrantzitsuak diren aldaketak ez dira sindikatuen onarpenarekin hartu, hauek egindako alegazioei muzin egin diezuelarik.
- Gure lan-baldintzetako bat den egutegiaren aldatzeko erabakia ezin da inolaz ere hartu negoziazio kolektiboaren gainetik.

Beraz, ezin dugu onartu alde bakarrekoa den erabaki hau.

Aipatu aurrekoagatik guztiagatik hauxe exijitzen dizugu:

2008-09 ikasturterako egutegia egiteko ezarritako araudian azken urteetan indarrean egondako irizpideak jasotzea, zaindari egun eta herriko jaiak dagokienean, eta ikasturte hasiera irailaren 8an egin ahal izatea.

Getxon, 2008ko maiatzaren 27an

Klaustroaren izenean



Marije Ortego
Aixerrota BHIko zuzendaria